

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



ANDOAIN PIANO JAIALDIRAKO PREST

Hamalagarren edizioa larunbatean eta igandean ospatuko da, Basteron. Jaialdiaren atarian, ostiral honetan, bi kontzertu berezi antolatu dituzte. / 2-3

Gobernuz Kanpoko Erakundeak

Andoaingo Udalak lankidetzaz hitzarmen berria sinatu du gobernuz kanpoko hemeretzi erakunderekin, mundu zabalean hainbat egitasmo garatu ahal izateko / 8-9



Malen Moraindeira
Iriondo urnietar gaztea Bera Bera eskubaloiko lehen taldetik hurbil / 10-11



Asier Kidam magoa eta txokolate jatea Urnietako Saroben, elkartasunezko jaialdian / 14



Ana Jandula
Andoaingo Keinuko dendariari elkarrizketa, inauterien atarian / 5

K B U L E G O A

Sormenarekin konektatuta.

Kulturgintzarako laguntza eta aholku bulego berria.

Errege-Eregina
Katolikoak 16
11:00-13:00 / 16:00-20:00
T. 943 113 343
KBulegoa@gipuzkoa.eus



Andoaingo Piano Jaialdia andoaindar askoren laguntzari esker aurrera ateratzen da. Aurtengoan, Udal musika eskolako 37 haur eta gazte igoko dira oholta gainera. Argazkian, Udal musika eskolako ikasleak Txitxu Castro irakaslearekin batera. Ostiral honetan, arratsaldeko 17:30ean hasita, jaialdiaren atarikoak eskainiko dute. Ondoren, 19:15tan hasita, Francisco Escudero Orkestra Sinfonikoak emanaldi berezia eskainiko du. UNANUE

Ikuskizuna hastera doa

Andoaingo Piano Jaialdia Euskal Herriko musika eskola askorentzat mugarrria da, ilusio eta mimo handiz prestatzen dutena. Ikasturtearen erdialdera kokatuta, haur eta gaztetxoari helburu lorgarria eskaintzen zaie: taula gainera igo eta jendaurrean pianoa jotzea

J.A.Ubeda/A.Senperena ANDOAIN
Egongo ez balitz, norbaitek asmatu beharko luke. Eta kasu honetan, hutsunea antzeman eta aukera eskaini zutenak andoaindarrak izan ziren. Gaur gaurkoz, Andoaingo Piano Jaialdia garrantzia handikoa izatera iritsi da. Lorpen handia da, musika eskola askorengan eragin positiboa izan duena. Plangintza egiteko aukera paregabea eskaintzen du, ikasturtearen erdialdera mugarrria ipiniz. Aurreko hilabeteetan ehunka haur eta gazte piano doinuak lantzen ari-

tu dira, Andoaingo Piano Jaialdia helburu nagusitar hartuta. Jaialdiaren diseinua doitu dago: Adinaren arabera, musikariak jendaurreko saioa eskaintzera igotzen dira taula gainera. Bakarka edo binaka, eta kasu bakan batzutan hirunaka, pianojoleari jendaurrean aritzeko aukera ematen zaio. Eta ez nolana: Kalitatezko agertokira igota, profesionalek erabiltzen ohi duten pianoan joz. Formula arrakastatsua lortuta, irauraraztea eta elementu berriak txertatzea ez da lan ma-

kala izan. Andoain herriak jaialdiaz harro egoteko arrazoiak baditu, beraz.

Bada beste arrazoi bat, aipamen berezia merezi duena. Asteburu osoko antolaketa auzolanari esker aterako da aurrera. Argibideak emanez, lasaitasuna eskainiz... gazte eta heldu asko dira Bastero kulturgunean lan ezberdinetan burubelarri ibiliko direnak. Bisitariak urduri hurbilduko dira, akaso. Baina pozarren joan daitezela. Jaialdiaren antolakuntzak asteburu honetan lezio berria emango du.

Andoain musikaren hiriburua



Aurreko edizioko emanaldia, Basteron. AIURRI

Deiadar elkarteak antolatutako jaialdiak Euskadiko musika eskola askoren plangintzan eragiten du, ikasturte erdiko mugarriri bilakatuz. Eta ez dira gutxi, Andoaingo Piano Jaialdiaren atarian, entsegu-kontzertu modukoak antolatzen dituztela. Andoaingoari ematen dioten garrantziaren adierazle da. Maiz esan izan da Andoain egun hauetan musikaren hiriburu bilakatzen dela. Eta datuak hor daude, esatera hori errealitate bilakatzeko. Donostiatik 110 musikari hurbilduko dira, Zarautzetik 42, Irundik 37, Hernanitik 28, Azpeitiatik 28, Beasaindik 26, Elgoibartik 25, Errenteriatik 24, Eibarretik 24. Eskualdekoen artean, andoaindarrak aurtan 37 dira, eta urnietarrak 13. Bizkaitik 73 partaide datoz, horien artean Santurtzitik 17 eta Gernikatik 10. Nafarrak 31 dira, gehienak iruñarrak. 12, denera. Lapurditik 2 musikari datoz, eta Tarragonako Reus hiritik beste 1.

Laguntzaileak, ezinbestekoak Andoaingo Piano Jaialdian



MIKEL ARTOLA PAGOLA
URNIETA, 25 URTE

"Tradizio modukoa da Piano Jaialdian laguntzea"

Zer da zuretzat jaialdia?

Niretzat tradizioa da. Urte asko dira eta jakin badakigu datorren urtean ere egongo dela. Tradizio modukoa da piano jaialdia. Inguruko herrietan ekitaldi ezaguna da.

Zertan laguntzen duzue?

Zein da zuen lana?

Azken urteetan harreraren egon izan naiz, Basterora sartu eta parez pare jartzen duten mahaian. Azken urteetan, gainera, areto txikian aurkezle lanetan ere aritu naiz.

Kanpokoan ohiko galderak zeintzuk dira?

Harreraren nagoenean partaideak non jo behar duen izaten da galdera ohikoena.

Anekdotarik bai?

Deigarria egin zait urritasuna duten haurrak pianoa jotzen ikustea. Itsuen kasuan edo beso bakarrekoen kasuan. Bere onena emateko haur horien kemenak indarra transmititzen du.



OIHANE MENDIZABAL KARRERA
ANDOAIN, 20 URTE

"Laguntzaileok familia modukoa osatzen dugu"

Zer da zuretzat jaialdia?

Leku askotariko jendea biltzen duen ekitaldi handia da. Mugimendu handia dago, guk betidanik barrutik bizi izan duguna: Pianojole modura eta baita antolatzaile modura ere. Familia modukoa gara.

Zertan laguntzen duzue?

Zein da zuen lana?

Normalean haurrei nora joan esaten diegu, mahaitan informazioa ematen aritzen gara. Haurrak lasaitzen ibiltzen naiz ere, batzuk oso urduri etortzen baitira.

Kanpokoan ohiko galderak zeintzuk dira?

Orduz gero zehatza jakin nahi dute. Guraso asko, gainera, oso urduri egoten dira eta askok emanaldia hasi aurretik haurrekin egon daitezken galdetzen digute.

Anekdotarik bai?

Haurren bat negarrez hasi eta lasaitzen saiatzen zaren ueña.



JOSU LOPETEGI KARRERA
ANDOAIN, 21 URTE

"Laguntza ematera oso gustura etortzen naiz"

Zer da zuretzat jaialdia?

Txikitatik jaialdiari lotuta nago. Bertan pianoa jo izan dut, baina orain alde batera utzita daukat. Piano jaialdian laguntzea musikarekin dudazalek eusteko modua da. Oso gustura etortzen naiz.

Zertan laguntzen duzue?

Zein da zuen lana?


Informatika lanetan aritu izan naiz, eta beste batzutan informazio mahaian.

Kanpokoan ohiko galderak zeintzuk dira?

Informazio orokorra eskuratu nahi izaten dute: orduz gero, aretoa, sarbidea... Jaialdian datozenak urduri izaten dira, eta une horietan duda asko sortzen zaizkie.

Anekdotarik bai?

5 urteko haurra pianoa jotzen ikusteak harritu egiten nau. Ohituta nago 7-8 urtetik aurrera instrumentuak jotzen ikustea. Meritu handia dute!



Jaialdian hurbiltzeko gonbitea

MIRIAM ULANGA DEIADAR ELKARTEA

XIV. ediziora iritsi gara, eta edizio honetan musikan ere garrantzia izan duten pertsonaiek gogoan hartu nahi ditugu. Aurtengoan Clara Schumann jaiotzaren mendeurren ospatzen da. Pianoan obra berezia du eta, bere garaiko pianojoleen ildoan jarraituz, oso maila altua erakutsi zuen. Berari eta bere senarrari esker ona adierazteko, aurtengoan sariketa berezia antolatu dugu.

Jaialdiaren bezperan, atariko modura, bi kontzertu antolatu ditugu Basteron. Arratsaldeko 17:30ean hasita, musika eskolako piano ikasleek emanaldi berezia eskainiko dute. 19:15etan, berriz, Francisco Escudero kontserbatorioko orkestra sinfonikoak, abesbatzak eta Andoaingo Musika eskolako abesbatza txikiak bigarren kontzertua eskainiko dute. Schumann, Hayden eta euskal kantez gozatzeko aukera izango da. Musikazaleak gerturatzeko gonbitea luzatu nahi dugu, Andoaingo Piano Jaialdiari hasiera polita emateko modua izango baita.



Antolatzaileei esker ona

ESTI MUJIKA ANDOAINGO UDALA

Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu antolatzaileei, bereziki Ainhoa Aiertza, Txitxu Castro eta Miriam Ulanga Deiadarreko hiru kideei, jaialdia aurrera ateratzeko izugarritzko lana egiten dutelako. Beraiei eta laguntza ematen duten bolondres guztiei ere, Udalaren eskerrona. Piano Jaialdia Andoainera eta musikara gerturatzeko aukera paregabea da. Jaialdiaren baitan, gainera, urte urte jardura berriak txertatuz doaz. Schumann mendeurren aintzat hartu dute aurtengoa, eta askotan pianista edo instrumentista gazteen artean jotzen dituzten lanen egiletza ez dute ezagutzen. Jaialdiaren bidez pertsonaia horien izena eta izana ezagutzera ematea oso aukera polita iruditzen zaizkigu. Polita da ere musika eskolen artean lantzen den sinergia hori.

Gure eskerrona bisitariak Andoainera ekartzeko beste ekintza bat antolatzeagatik. Aurreko urteetan bezain ondo aterako dela desio dugu.

Zazpi nota, zazpi kolore

DO

PARTE HARTZE DATU HANDIAK
712 musikari arituko dira aurtengo jaialdian, horietako 213rentzat lehen aldian izango da. 5 eta 18 urte bitarteko partaideak dira, jatorri askotarikoa: Gipuzkoatik 603 parte hartzaile, Bizkaitik 73, Nafarroatik 33, Lapurditik 2 eta Tarragonatik 1.

RE

PIANOAREN ALDAERAK
Bakarka eta binaka edo hirunaka parte har daiteke: 532 lagun bakarka, 128 lau eskutara eta 42 sei eskutara.

MI

MUSIKA PIEZA UGARI
461 obra ezberdin entzun ahal izango dira, jaialdi osoan zehar. Aurtengoa, bereziki, Clara Schumann musika piezak gogoan hartu nahi izan dituzte.

FA

JAIALDIA ETA SARIAK
Nork bere burua estutzen duen emanaldia da, musikaria ia-ia kasu guztietan oholza gainera bakarka igotzen baita. Epaimahaiak partaideak erakutsitako mailaren arabera domina ezberdinak banatuko ditu.

SOL

ANDOAINDIK MUNDURA
Antolatzaile nagusiak hiru dira: Miriam Ulanga, Txitxu Castro eta Ainhoa Aiertza. Udalaren laguntza dute, eta horrez gain boluntarioen laguntza handia.

LA

ASTEBURUA MUSIKAZ BLAI
Otsailaren 16 eta 17, goizez eta arratsaldean. Igandean, 18:00tan hasita, amaiera kontzertua.

SI

JAIALDIAREN BEZPERAKO SAIOA
Otsailaren 15ean, bi emanaldi berezi izango dira Basteron.

Urnietako musikariak prest daude



Andoaingo Piano Jaialdiaren atarian, kontzertua eskaini zuten. UDALA

Musika eskolako piano-jotzaile talde batek Donostiako musika eskolako ikasleekin batera piano emanaldia eskaini zuen, aurreko astean. Piano Jaialdiko piezak lantzeko aukera baliatu zuten.



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Udal hauteskundeak: PSE-EE

Gogorik ez du galdu, eta kanpaina berriari ekiteko grinatsu nabari zaio Maider Lainez Andoaingo sozialisten buruzagiarri. Meritua badu, bere tokian beste batek lekukoa alderdikideren bati emango liokeelako. Egin dezagun memoria piska bat. Agintaldi honetan zehar bi egoera zail kudeatzea egokitu zaio. Lehena, 2015eko ekainaren 13an. Goiz hartan berak eta alderdikide gehienek alkatetza eskuratzearekin amestu zuten. Aginte-makila eskura zutela ondorioztatu genuen kazetariok, batzarraldia hasi baino lehenago udaletzeko atarian sozialistak eta Lainezen senitartekoak ilara egiten aurkitu genituelako. Indarrean zegoen PSE-EAJ alderdien arteko ituna Gipuzkoan, bata bestea babestea bermatzen zuena. Baina, ezustean, ez zen hori gertatu eta Ana Carrerek hartu zuen kargua. Zapuztuta geratu ziren sozialistak, bat baino gehiago haserre. Hori bai, gehien-gehienak alkate izendatu berria zorianzera hurbildu ziren. Detalle hori izan zuten, une zail horretan.

2016ko ekainaren 20an iritsi zen bigarren ezustekoa. Andoaingo PSE-EE alderdiko bigarren hautagaiak alderdia utzi eta Zinegotzi Ez-Atxiki modura aritzea erabaki zuen. Udaletxean 5 zinegotzi izatetik 4 izatera igaro ziren sozialistak. Sorpresa handia izan zen, Lainezen gertuko kolaboratzailea bere kabuz hasi zelako lanean. Erabaki hori garrantzia handikoa izan da agintaldiaren garapenean. Ganemos eta Irabaziko zinegotziekin batera, Zinegotzi Ez Atxikiak lankidetzaren sendoa egin du. Ordezkaritza txikiaren koalizio modukoa izan da, hiru kidez osatua. Gehiengo osoz onartu behar diren erabakietarako helduleku berria sortu zitzaion, orduan, EH Bilduri. Udal aurrekontuak hiruko ordezkaritza horri esker onartu ahal izan dira, azken bi urteotan.

Ez dira nolana hiko gertaerak izan, eta hala eta guztiz ere Lainez 2019ko hautagaitzaren aurkezpenean grinatsu eta indartsu agertu zen.

Aipagai izan ditugun bi ezustekoetan biktimaren papera har dezake, eta hein batean horrela dela esango nuke. EAJ-PNVren babesa jasotzea jeltzaleen esku zegoelako, ez beste inorenengan. Eta Zinegotzi Ez Atxikiaren kasuan, zinegotzi akta pertsona bakoitzarena da. Inork ezin dio Alvaro Gonzalez eskubide hori ukatu, kargua berea baita.

Galdera batzuk airean geratu dira. Gutxienez, bi. 2015eko ekainean, kargua hartu aurreko egun haietan, Lainezek eta Andoaingo PSE-EEK jeltzaleen babesa eskuratzeko nahikoa egin al zuten? Eta bigarrena, 2016ko ekainean PSE-EEren baitan sortu zen krisi hartan, zer izan zen gertu-gertuko alderdikide ziren lehen bi zerrendagaien artean hautsi zena?

Alderdi sozialistak badu berbideratu behar duen arazo handia: konfiantza falta. 2011ko Udal hauteskundeetatik hona botoak galtzen eta galtzen ari da: 2062 boto 2011ko Udal hauteskundeetan, 1836 boto 2012ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 1887 2015eko Udal hauteskundeetan, 1645 boto 2015eko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, 1472 boto 2015ko Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, 1383 boto 2016ko Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, 1077 boto 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Datuok kezka handia eragin beharko liokete edonori.

Espainiar politika hain bolkanikoa den garaiotan, Pedro Sanchez airoso atera daitekeen panorama politikoa mesedegarria izan daiteke Andoaingo PSE-EErentzat. Baina horretarako airoso atera behar du, eta egun Moncloako agintea ere arriskuan dago.

Gogotsu ikusten zaio Lainezi. Saiatua da, eta lana gogotik egin beharko du. EH Bildu eta EAJ aurretik izatea gerta daitekeelako.

POSTONTZIA

GURE ESKU DAGO GIZARTE EKIMENA

Eta berrit bati hasiera emango dio Gure Esku Dagok

Gure herrietan botoz bete ditugun hautetsontziak ekarri ditugu gaur, azken lau urteotan galdeketak antolatuta ditugun 208 herrietako ordezkariok; Irunitik, Laudiotik, Doneztebetik, Donostiatik, Portugaletetik... Gaur hutsik ikusten ditugun boto kutxa hauei milaka eta milaka herritarren ilusioa darie. Erabakitze beharra. Eta bost urteotan egindako bidean, pauso berriak emateko nahia.

Hautetsontzi hauek eman digute aukera etorkizuna irudikatze, zer nahi dugun eta nola erabaki nahi dugun jabetzeko, urteetan aurpegira begiratu ez diogunari eskua emateko, elkarrekin ahalduz, ikasteko, gaitasun tekniko, ekonomiko eta kolektiboak geureganatzeko, demokrazian sakontzeko, gudan sinesteko... Hori guztia eta gehiago eman digute hautetsontzi hauek.

Hautetsontziotan gizartearen %100ak du lekua. Gurea herri guztiarentzako proposamena baita; ez dugu behin ere inor alboan utzi. Orain arte 218.248 herritarrok hartu dugu parte galdeketetan, eta emaitza



horretaz harro bagaude ere, oinarria zabaltzen jarraituko dugu; Euskal Herriko lurraldeetan erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko, erreferendum bidez, normaltasunez, libre eta demokratikoki, eta berme guztiekin. Orain arte 208 herri argiztatzeko gai izan gara, eta hemendik aurrera, Euskal Herri osoa argiztatzeko dugu helburu.

Erabakitze baldintzak sortzen ari gara. Galdeketen bidez ereindako lurra eman ditu bere fruituak, eta eman digu herritarro konfiantza, indarra eta determinazioa bide berean jarraitzeko.

Galdeketen bidez lortutako horretan sakontzeko garaia da orain. Lur bera, lur emankor hori bera ereiten jarraitzeko garaia da; oraindik ere, asko baitu emateko.

Eta berrit bati ekitera goaz. Eta fase berri horren nondik norakoak aditzera emateko ekitaldi berezi bat antolatzen ari da Gure Esku Dago. Martxoaren 31n Bilboko Euskalduna Jauregiko auditorio nagusian izango da, eguerdiko 12:00etan. Bost urteko zikloa borobildu, eta urrats berriak egiteko abiapuntua izango da. Heldu zein gazte, emakume, gizon ala beste, bateko zein besteko, guzti-guztiak gonbidatuta zaudete hitzordu honetara. Izena emateko aukera zabalik dago jada Gure Esku Dagoren webgunean.

Ezer ez dagoenean ziur, dena da posible. Orain da unea. Herritarron unea. Eragiteko garaia. Etorkizuna gure eskuetan sentitzen dugulako, prest gaude erabakira iritsi arte lanean jarraitzeko, lurra ereiten segitzeko. Bost urte ez baitira alferrik igaro.netarako jaio ginen.

Egin dezagun bidea.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoaingo
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoaingo), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Inauterietan txilaba, eta Santakruzetan bluxa"

ANA JANDULA ANDOINGO KALE NAGUSIKO KEINU DENDAKO ARDURADUNA

Amaia Senperena ANDOAIN Andoaingo Kale Nagusiko erakuslehoan ia-ia Eguberrietatik inauterietara igaro dira. Eta konturatu orduko, Santakruzetako bluxa ederrak salgai ipiniko dituzte.

Inauteriak iristear dira, zuen erakuslehoak hori iradokitzen dio bertatik igarotzen denari. Txilaba da gehien eskatzen digutena. Urtero hurbiltzen dira bezeroak, eta normalean herrikoak izaten dira. Aurten, gainera, Tolosako konpartsa, txaranga eta musika talde batentzako zapiak, txapelak eta gorbatak egiteko eskaera jaso dugu ere.

Data gerturatu ahala, mugimendua handituz doa? Galdezka etortzen dira, baina jendeak normalean txilabak azken unean erosten ditu. **Santakruzetan, aldiz, bluxa izaten da nagusi**

Bai, eta dagoeneko aurten bluxa eskatuz koadrila bat baino gehiago hurbildu zaigu. Hori ere, normalean, azken



Ana Jandula Keinu dendaren kanpoaldean. AIURRI

unerako uzten den gauza izaten da, baina badirudi aurten batzuk garaiz dabilzala. Hobe horrela, denbora izanez gero gauzak beste modu batean lan egiten baita.

Bluxa eskatzera noiz hurbiltzea da gomendagarriena? Bluxak egiteko, gutxienez hiru aste lehenago etortzeko gomendioa egiten dugu. Bluxa aukeratu eta gero, bordatua dendan bertan egiten dugu.

Ze adin tarteko bezeroa etortzen zaizue bluxa bila? Eta zein gomendio ematen diezue? Normalean gazteak izaten dira. Kolore ezberdinak aukeratzeko gonbitea luzatzen diet. Lehen bluxa gehienak bi kolorekoak izaten ziren, baina orain kolore gehiago sartzeko aukera dago. Ona da hori, gehienbat koadrilen arteko desberdintasuna egon dadin. **Ezagunak dira zuen bordatuak eta txapelak. Nabarmendu dutena, esaterako, Pedro Rodriguezi egin diozuen izan da.** Omenaldiak, ezkontzak, mus txapelketak eta beste hainbat gauzetarako txapelak eta zapiak bordatzen ditugu. Rodriguezena asko gustatu zaio jendeari, askok zoriondu gaituzte lan horregatik. **Sare sozialak erabiltzen dituzue?** Facebook orrialdea badugu, eta orain webgune berria ireki nahian gabilzta. Gure ideia online erosteko aukera zabaltzea da, baina horrelako ekimenek lan handia eskatzen dute. Horretan gabilzta. **Txilabaren garaia heltzar da. Zer esango zenieke herritarrei eta ingurukoiei?** Inauteria oso dibertigarria da, eta txilaba batekin Tolosako eta Andoaingo inauterietan parte har daiteke. Jantzeko eta ibiltzeko oso jantzi erosoak da, gainera. Beraz, anima daitezela!

MINTZALAGUNAK

Sukaldaritza tailerra, ostiral honetan



KOMUNITATEA
Mintzalagunak

Guraso eta helduentzako tailerra prestatu du Andoaingo Mintzalaguna taldeak, Bidaide egitasmoaren barruan. Kasu honetan, brotxeta dibertigarriak egingo dituzte. Saioa doakoa da, eta 5 eta 10 urte bitartekoei zuzendua dago. Andoaingo Ludotekan izango da otsailaren 15ean, arratsaldeko 17:30ean hasita.

Guraso eta haurrak elkarrekin ondo pasatzeko helburuaz antolatuta, testuinguru euskalduneari jolasean jarduteko. Parte hartzeko asmoa izanez gero, izena ematea gomendatzen da, euskaltzera bertara joanda edo telefonoz deituta.

Izen-ematea:
943 59 17 04 / 662 132 558.

GARAIAN GARAIKOA

Andoaingo inauterietako desfilean parte hartzeko izena eman behar da

Andoaingo Udala
Kultura batzordea

Sartu gara inauterien hilabetearen, eta ohiturari jarraituz, ostegun gizean hasi eta igandera bitarte ospatuko dira Andoaingo inauteriak. Martxoak 2an, larunbatarekin, izango da desfilea eta parte hartu nahi duen talde, elkarte edo koadrila guztiei jakinarazten zaizue izena emateko epea otsailaren 18tik 22ra, biak barne, irekiko dela. Orduan, ez ahaztu desfilean parte hartu nahi duen guztiak aipatu datetan izen-ematea, Bastero Kulturagunean (10:30-

13:30 / 16:30-19:30). Izena emateko orduan kontutan hartu beharrekoak, besteak beste:

- Konpartsa arduradunaren izen deiturak, helbidea, telefonoa...
- Karrozen ezaugarriak, neurriak, megafoniaren potentzia, partaide kopurua...

Aldi berean jakinarazten da otsailaren 25ean, astelehenarekin, konpartsen desfilearen antolaketa bilera egingo dela eta, bertan, Desfileko ordena zozketaren bidez erabakiko da eta beste



hainbat akordio adostuko dira. Bilerak, Urigain Kultura Etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Behin inauteriak bukatuta balorazio bilera egingo dela martxoaren 11n.

ELKARRETARATZEA

Preso dauden Kataluniako politikariei elkartasuna Andoaingo Zumea plazan



"Konponbidea, demokrazia, llibertat. Elkartasuna aterpe" izenburupean, otsailaren 12an elkarretaratzea deitu zuen Andoaingo Gure Esku Dago

taldeak. Bilkurak bat egin zuen preso dauden Kataluniako politikoen aurkako epaiketaren hasierarekin.



Matilde Arribillaga, Pedro Jauregi, Dominika Urreta, Izaskun (alaba) eta Amaiarekin (biloba) batera. Manifestazio baten ondoren, autobusak etxerako bidea noiz hartuko zain. ARRIBILLAGA

Matilde gogoan

Matilde Arribillaga Olasagasti 1994ko otsailaren 18an istripuz hil zen, Gasteizera euskal presoan aldeko elkarretaratze batera zihoala. Larunbat honetan gogoan hartuko dute Espigoian, eguerdiko 12:00etatik aurrera

Xabier Lasa ANDOAIN

Duela 25 urte izan zen. Egun hartan euskal presoek euren zigorrak etxetik gertu betetzearen aldeko proposamena aztergai zen Eusko Legebiltzarrean. Senideak elkarretaratzea antolatatu zuen, eta andoaindarrak hara joateko asmoa zuen. Goizean goiz, haruntza zihoan autobusa Bazkardon geratzekoa zen. N1 errepidea alderik alde zeharkatzea otu zitzaion, eta kamioi batek aurretik eraman zuen.

Biharamunean, hileta-elizkizuna amaituta, Goikoplazako omenaldia sakabanaketaren aurkako ekitaldi jendetsuan bilakatu zen. Amnistiaren Aldeko Batzordeen izenean hitza hartu zuen Julen Zelarainek "euskal preso politikoko guztiei ama hil zaie" adierazi zuen. Joxe Fermin Argiñarena urnietarrak ere bertso saio laburra eskaini zuen. "Negarrez jaio, sufritzen bizi/burrukan hil da Matilde" izan zen bere azken puntua. Matilde-

ren senarra Pedro Jauregi oholtzara igo, eta Espainiako justiziak preso batzuekin eta besteekin zeukan jokaera zeharo kontrajarria aipatu zuen, Galindo guardia zibila gogoan hartuta: "Gure ibilera sinisterik ez dago. 72 urteko aitona ibili egin behar du semea ikusteagatik milaka kilometro egiten, beste batzuk 108 urteko zigorra izan arren

kalean dabilzan bitartean". Izan ere, Pedrok eta Matildek milaka kilometro egin behar izaten zituzten Xabier preso zeukaten semea 20 edo 40 minutuz ikusi ahal izateko. Xabier Huelvako espetxean zegoen amak istripua eduki zuen unean, eta eskatu arren, ez zioten baimenik eman Andoainera etorri eta amari azken agurra egin zieziaion.

Kaletxikin jaioa

Matilde Arribillaga Kaletxikin jaio zen, 1924an. Errepublikara garaian Batzokiko dantzari taldeko poxpolina izan zen. Gaztetatik lanean aritzea egokitu zitzaion. Neskame gisa lehenbizi, mediku baten etxean; Laborde lantegian ondoren. Pedro Jauregirekin ezkondu eta lau seme alaba eduki zituzten: Izaskun, Ramon, Xabier eta Peio. Haurrak koskortu ahala, Kale Nagusian arraindegi batean lanean aritu zen. Eta, ondoren, sukaldeko tresneria denda Kaleberrian.



Matilde Alaine biloba besoetan duela.



Matilde Arribillaga, hileta elizkizun batean. JONURBE

Emakume borrokalaria

Peio 'Tuti' eta Xabier 'Xifi' bere semeen iritziz, bere ideologiari tinko eutsi zion beti: "Grinatsua eta nekaezina izan zen", Peioren hitzetan. "Edozer egiteko eta edonori laguntzeko beti prest agertu izan zen: kapaz zen egun berean, goizean ez dakit zein ekitaldiko jendearentzat ogitartekoak edo bazkaria prestatzen aritzeko, eta arratsaldean Bilbora presoan aldeko enkartelada batera joateko". Xabierrek gaineratu duenez, "Poliziaren aurrean kokiltzen ez zen horietakoa zen. GALen jardueraren urterik bortitzenetan ere izurik gabe joaten zen Iparraldera, niri bixitatu egitera".

Euskara, presoak, independentzia, intsumisioa... Andoaingo Leontxi Alustiza eta Dominika Urreta eta beste zenbait emakume izaten zituen bidelagun. Euskal Herria osoan famatuak egin ziren beren ibilerek; "Komando zaharra" osatzen zuten.

"Gorputz sendokoa zen eta adinaren eraginez errenka egiten zuen, baina horrek ez zion bidean jarraitzeko eragozpenik sortzen. Egoskorra zen gogotik".

Irribarrea sekula galtzen ez zuen emakumea izan zen, hitzuna, jendartekoa, Peiok ziurtatu duenez: "Etxetik kalera abiatu, eta honekin eta harekin kalean hizketan geratzeko erreparririk sekula ez zuen izaten".

"Kalean, berdin zion zein ideologia zeukan jendeak, denekin mintzatzen zen. Baina politikara iristerakoan, ez zegoen inor isilik egotera behartuko

zuenik, eta baziren saiatzen zirenak", gogoan du Xabierrek. Injustiziak su bizian jartzen zuen Matilde: "Bere burua baino gehiago besteena zaintzen zuen maiz, eta gehienbat presoekin, errefuxiatuekin eta atxilotuekin arduratzen zen. Asko sufritzen zuen, esate batera, poliziak atxilotetak burutzen zituenean, nahiz eta atxilotuak ezagutu ez".

Jendeak, agian pankarta edo kartelaren atzeko emakume baten irudia eduki dezake gogoan, baina asko zuen samurtasunetik, eta hori batik bat Arkaitz, Zuhaitz, Gaizka, Igantzi, Kristian, Loren, Amaia edo Alaine bilobekin agertu ohi zuen, semeek ziurtatzen dutenez.

Presoekiko urruntze politika

Urruntze politika salatzerantz zihoala hil zen istripuz, eta 25 urteren ostean, bere horretan dirau presoekiko politikak. Halaxe adierazi dute larunbateko omenaldia prestatu duten Andoaingo senide, lagun eta herritarrek. Hiru senidek bizi dute egoera hori Andoainean, egun. Preso baten neskalagunak eta 23 hilabeteko euren semeak, biak andoaindarrak, urtarillaren hasieran auto istripua eduki zuten. 700 kilometrorara dagoen Arleseko espetxetik zetozen.

Urruntze politikak senideen artean eragiten duen kaltea (auto istripuak, dirua xehutzea, bidai luzeak...) salatzeke mozioa atzergai izango da otsaileko plenoan. Bertan, besteak beste, espetxe politika berria eskatzen da, hainbat neurri zuzentzaile proposatuz.



Parron, Romero, Garcia, Amutxastegi, Lainez, Andueza eta Garmendia otsailaren 8ko omenaldi ekitaldian. AIURRI

Alderdikideen omenaldia

Otsailaren zortzian, Joseba Pagazaurtundua hil zuten hamaseigarren urteurrenean, Andoaingo eta Gipuzkoako PSE-EE alderdiak omenaldi ekitaldia antolatu zuten: "Memoriarik gabeko herrialdea izatea ezin dugu onartu"

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Goikoplaza ondoan dago Agustín Ibarrolaren "Josebaren etxea" eskultura. Hara hurbildu zen, ostiral eguerdian, Andoaingo eta Gipuzkoako sozialisten ordezkari zabala. Denen buru, Maider Lainez Andoaingo idazkari orokorra hizlari aritu zen. Alboan izan zituen Estanis Amutxastegi alkate ohia eta egungo zinegotzi taldea: Daniel Garcia, Petri Romero eta Ascen Parron. Eta haiekin batera, Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEko idazkari orokorra eta Marisol Garmendia Foru Diputatua. Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos Urnietako sozialisten buruzagiak bertan ziren ere. Ikusleen artean, Andoaingo afiliatu gehiago, eta baita Josean Perez Gabarain alkate ohia ere. Distantzia zainduz, buruzagi sozialistengana gertuegi hurbildu gabe egon zen.

Maider Lainezen adierazpenak

"Iazko omenaldi ekitaldian ETARI behin betiko desagertzeko eskaera luzatu genion. Sozialistontzat ETAREN jardueraren etenaldia garrantzia handiko albiste izan zen, aspaldiko eskaera zen. Baina berandu iritsi zen. Terrorismo irrazionala pairatu zuten 800 senideentzat berandu zen. Joseba bera askatasuna defendatzeagatik eta ezberdin pentsatzeagatik erail zuten. Josebak konplexurik gabe hitz egiten zuen, beldurrik gabe. Horrexegatik, bera bezalakoekin zorretan gaude. Ez dauden ahotsa gara. Gogoan izango dituzten ahotsa izan behar dugu".

Estanis Amutxastegik, bere aldetik, Facebook sare sozialean honako mezua zabaldu zuen: "Joseba, ez dut ahazten ezta barkatzen ere. Ez erail zizunari, ezta haren laguntzaileei ere".

Senitartekoen ekitaldia

Otsailaren 10ean, igandearrekin, Joseba Pagazaurtundua senitartekoen ekitaldi irekia antolatu zuten. Bertara Estibalitz Garmendia Joseba Pagazaurtundua alarguna, Maite Pagazaurtundua eta senitarteko gehiago hurbildu ziren. Hainbat pertsona ezagunen babesa jaso zuten. Besteak beste, Fernando Savater, Ruben Mugica, Consuelo Ordoñez, Alfonso Alonso, Borja Semper eta Andoaingo sozialistak igandeko ekitaldian izan ziren.

EAJ-PNVren emendakinak Udal aurrekontu proposamenari

Gobernu taldearen proposamenarekin kritiko agertu dira, eta hainbat ekarpen egingo dituztela iragarri dute

Erredakzioa ANDOAIN

Proposamenen zerrenda egin dute: Herriko argiteria hobetzea, zuhaitzak inauterako ekarpen gehigarria, Renfeko geralekuko txarteldegia, baserri bideen hobekuntza edota Leizotzeko ur sarea berritzea... Denen batura 584.000 eurokoa da.

Bestalde, EH Bildurekin OLAGAIN auzoko isurien saneamendua bideratzeko bat egiten dutela diote, "akordioak lortzeko erabat irekita" daudela adieraziz.



Izagirre jeltzalea. EAJ-PNV

Jeltzaleen emendakinak aztertzeko prest dago EH Bildu

Inauteriak direla eta, hilabete honetako Udalaren osoko batzarraldia otsailaren 21era aurreratu dute

Erredakzioa ANDOAIN

Gobernuaren ardurak dituen EH Bilduk ontzat hartu ditu EAJ-PNVren emendakinak: "Emendakinak lehenbailehen erregistratzea espero dugu, publiko egin duten oharrean ez baitute esaten proposamenak egiteko dirua nondik jarri nahi duten. Emendakin horiek erregistratu eta EAJ-PNVrekin lehen bilera egiteko zain geratzen gara, proposamen horietan sakondu ahal izateko". Aurrekontua hilaren 21ean bozkatzekoa da.



Carrere alkatea. AIURRI

GuraSOSekin bat

Andoaingo Podemos Ahal Dugu alderdiak bilera irekia egin zuen otsailaren 10ean. Egun horretan bertan, Podemoseko hainbat kidek GuraSOSekin ekimenaren aldeko argazkia argitaratu zuten. Argazkiarekin batera honako mezua zabaldu zuten: "Andoaingo Podemos Ahal Dugu ere Gipuzkoako hondakinen arazoan irtenbide adostu baten alde! Erraustegirik ez!"



PODEMOSAHALDUGU



Udalarekin lankidetz hitzarmen bana sinatu zuten hemeretzi Gobernu Kanpoko Erakundeen ordezkariak. AIURRI

Nazioarteari laguntza sorta

Andoaingo Udalak mundu zabalean garapen bidean dauden herrialdeekiko konpromisoa berretsi du, lankidetz hitzarmen berriak sinatuz. Hezkuntza, azpiegiturak edota genero berdintasuna sustatu nahi dute, Gobernu Kanpoko Erakundeen bitartez

Xabier Lasa URNIETA

Andoaingo Udalak nazioarteko garapenerako laguntzak eskaintzen ditu, Gobernu Kanpoko Erakundeen bitartez. Helburua garapen bidean diren herrialdeei laguntza ematea da, lankidetz hitzarmen ezberdinen bitartez. Nikaraguan, Etiopian, Bolivian, El Salvadorren, Indian eta beste hainbat herrialdeetan garatuko diren egitasmoen berri eman zuten otsailaren 8an, Udaletxeko batzar aretoan antolatutako aurkezpen ekitaldian. 126.000 euro banatu dituzte,

guztira. Denera, hemeretzi elkartek jaso dute diru laguntza. Bakoitzak bere egitasmoa garatu ahal izango du, horrela:

- **Elkarcredit elkarteak:** Suchitoto (El Salvador) herriko gazteen parte-hartzea sustatzea, nekazaritza alorrean
- **Behar Bidasoa ONG:** Kabugako (Rwanda) Garapen Lurburuan baliabiderik gabeko familientzat bost etxe txikien eraikuntza. 8.000 euro.
- **Calcuta Ondoan ONGD:** Keralako (India) buruko gaitotasuna daukaten emakumeen

gaitzea, bergizarteratze prozesuen bitartez. 7.000 euro.

- **Chiapas Enea:** Chiapaseko (Mexiko) jatorrizko emakumea gaitzeari begirako garapen turistikoa.
- **Derandain Fundazioa:** Ipar Turkananko (Kenia) komunitateetan lehen hezkuntza hobetzeko programa. 4.000 euro.
- **Doa (Denok Osasunaren Alde)** Beniko departamenduan (Bolivia) osasun sistema sendotzea, asistentzia eta formakuntza arloetan hobekuntzak eginez. 7.000 euro.

- **Fasfi:** Elias Piña bailaran (Dominikar Errepublika) ur hoditeria konpontzea eta eta familientzat ur tankea erostea. 4.000 euro.
- **FISC:** Ciudad Sandinon (Nikaragua) genero berdintasuna eta giza eskubideak sendotzea. 4.000 euro.
- **Etiopia Utopia Fundazioa:** Etiopiako lehen hezkuntzako neskatoen hezkuntza hobetzea. 4.000 euro.
- **Ojos del Mundo Fundazioa:** Inhambaneko (Mozambique) emakumei harreta oftalmologikoa erraztea. 7.000 euro.
- **Herriak elkarlanean:** Lasarren (Haiti) eskola berria eraikitzea. 4.000 euro.
- **Kooperaziorako injenieritza (IC-LI):** Bokon (Beningo Errepublika) eraikitako lehen hezkuntzako eskola handitzea. 10.000 euro.
- **Mundu Solidarioa Helburu (AMS-MSH):** Nikaraguan ahalmen urritasune duten gazte eta helduen gizarte eta lan formakuntza. 7.000 euro.
- **Mundubat Fundazioa:** Mendabaledkeo Saharan giza eskubideen urraketa larrien biktimen elkartearen Lehen Kongresua. 4.000 euro.
- **ONG Honek:** Quincho egoitzan (Nikaragua) gizarte arriskuan diren mutiko eta neskatoen arreta. 11.000 euro.
- **Oscar Romero Solidaritza Batzordea:** Atiquizaya herriko (El Salvador) emakumeen eskubideen defentsarako antolaketa sozial eta politikoa sustatzea. 7.000 euro.
- **Proyde-Proega Fundazioa:** Hego Sudanen haurrentzako kalitatezko oinarrizko hezkuntza bermatzea. 11.000 euro.
- **Serso San Viator:** Gonaïvesen (Haiti) EFA-IMS delak berritzea. 11.000 euro.
- **Taupadak ONGD:** Goi Maniquiko Chimanen komunitateetan (Bolivia) genero berdintasunerako sustatzaileen formakuntza. 8.000 euro.

ANDOAINGO UDALAK HEMERETZI EGITASMO DIRUZ LAGUNDUKO DITU, 126.000 EURO BIDERATUZ



Osasun mentala Indian

EDURNE GALLO CALCUTA ONDOAN ONGD

Indiako Keralan, buruko gaixotasunak edukita kalean bizi diren emakumeekin lan egitea ahalbideratuko digu Andoaingo diru laguntzak. Indian munduko pobrezia %15a dago, eta hainbat baliabide ez dira iristen bertako herritarrengana. Handia da hango emakumeek jasaten duten indarkeria, eta imajinatu buruko gaixotasuna daukan emakume batek zer nolako estigma edukiko duen... Baztertuak dira, kalean bizi dira eta abusu sexualak jasaten dituzte. Emakume horiek jasotzeko ospitale bat eraiki da, eta bertan, terapia okupazionalaren bitartez euren bergizarteratzea ahalbideratzen da. Terapia psikologikoaz gain, eskulagintza jorratzen da; abilitade ezberdinak garatzen dituzte eta horrek laguntzen die euren ekonomia gaitasuna handitzen eta merkaturatzeko bidea errazten.



Hezkuntza Hego Sudanen

IDOIA AZPILIKUETA PROYDE-PROEGA FUNDAZIOA

La Sallerekin lotuta dagoen elkarte da gurea. Hego Sudango neska eta mutilai bigarren hezkuntza eskaintzeko eraikuntzan lan egin nahi da, batez ere urarekin zerikusia duen azpigiturak landuz. Iraganean Loretoko mojen kongregazioak bazeukan

bigarren hezkuntzako eraikuntza, baina mutilek gerrara joan behar izan zuten. Zorionez, bake garaian bizi dira orain, eta handik eskatu ziguten laguntzeko mutilak berriro hezkuntzan txerta zitezten. Horrela, Loretoko mojek eraikuntzaren zati bat utzi digute

eskola abian jartzeko, baina espero dugu bi urte barru mutilek beren eraikuntza edukitzea. Oraingoz ez da posible neskek eta mutilek elkarrekin biltzea, baina etorkizunean hori errealitatea izatea espero dugu.

Aditzera eman beharra dago Hego Sudan herrialde edo estatu independentea dela orain dela gutxitik. Bizpahiru urtetik hona, zehazki.



Mikrokredituak El Salvadorren

RITXI USATEGI ELKARCREDIT

Gure elkarte garapenerako mikrokredituak eskaintzen hasi zen, Ertamerikan batik bat. Orain bi urtetik hona, garapenerako kooperazio proiektuak sustatzen ari gara, hots, txandakako kredituen bitartez, elikadura burujabetza eta generoa. Euskadin, zehazki, ekonomia feminista eta finantza etikoa eta solidarioa jorratzen dugu. Andoaingo Udalarri esker, El Salvadorreko gazteei kreditu txikiak eskainiko dizkiegu bizimodua aurrera ateratzen lagunduko dieten baratzak landu ditzaten. Aldi berean, elikadura jabetzaren eta lidergoaren gaiak jorratuko ditugu eurekin. Ez da ahaztu behar Ertamerikako hainbat lekuetan gazteek zer nolako arazoa daukaten marekin, gaizkileen taldeekin alegia. Mara horietatik urrundu daitezten lortu nahi da azken batean.



Laguntza soziala Nikaraguan

ISABEL MEDINA MUNDU SOLIDARIOA

Urte mordoa daramagu Nikaraguan, ahalmen urritasuna duten gazte eta helduen gizarte eta lan formakuntza bultzatzen; han daukagun egoitzan 20 urte egin ditut nik kooperante gisa. Orain hilabete batzuk ekonomiarekin eta politikarekin zerikusia daukan gatazka piztu zen Nikaraguan; baina zailtasunak zailtasun, gure egoitzak ongi funtzionatzen jarraitzen du, eta etorkizunean ere halaxe egitea espero dugu, Andoaingo Udalarri eta beste zenbait erakundeei esker. Gaur egun ia 50 gazte eta heldurekin lan egiten du egoitzak.



Astarbe

943 551 527 Astigarraga

Gaztañaga

943 591 968 Andoain

Larre-gain

943 555 846

Ereñozu-Hernani

Mizpiradi

943 593 954 Andoain

R. Zabala

943 690 774 Aduna

Sarasola

943 690 283 Asteasu

Sagardoa Route

943 336 811 Gipuzkoa

Hotel K10

943 337 357 Urnieta

Amasa-Villabonako Udala

943 692 100

Andoaingo Udala

943 300 830

Urnietako Udala

943 008 000



Malen Morandeira urnietar gaztea. AIURRI

"Maila gorenera iritsi nahi nuke"

MALEN MORANDEIRA IRIONDO BERA BERAKO ESKUBALOI JOKALARIA

Urnietarrak Bera Bera eskubaloi taldearekin egin du debuta, 16 urte eskasekin. Oinak lurrean, ikasketak ditu lehentasun, baina oso argi du elitera iristen ahaleginguduko dela

Andoni Urbistondo URNIETA

16 urteko neskato lotsatia da Malen Morandeira. Argazki bat, bestea, 'Uy, hau ez e? Ile horiekin ez!', dio, aitak kargu hartu dion arte. Izan ere, elkarrizketa Patxi aita ondoan duela egitea

erabaki du eskubaloi jokalaria gazteak. Aita, eta bide batez, Bera Berako senior mailako entrenatzailea. Aste pare bat pasa dira Malenek Bera Berako lehen taldearekin debuta egin zuenetik, Kopan.

Alcobendasen aurka izan zen, eta dozena bat minutu egon zen kantxan. Donostiako taldearekin debuta egiten duen hamalagurren jokalaria gipuzkoarra da Malen, eta debuta egin aurretik hilabete pare bat egin ditu Ima-

Aita, eta eskubaloi entrenatzailea



Patxi Morandeira. AIURRI

Patxi Morandeira aski ezaguna da Gipuzkoako eskubaloi taldeen artean. Jokalari eta entrenatzaile gisa osatzen ari den ibilbideaz gain, Malen

jokalariaren aita da ere. Alabari buruz galdetzerakoan, hauxe da bere analisia: "Ez genuen espero hain maila ona lortzea. Ikusten dituzu gauzak, baina gorengo mailara iristea... Nik gozatu egin behar duela esaten diot, aukera baliatu, ze askok ez dute halako aukerarik izango. Gero ikusiko da noraino heltzen den, baina Malen Bera Berarekin debuta egin duen 14. jokalaria gipuzkoarra da. Uste dut aintzat hartzeko zenbakia dela. Buelta asko ematen dizkio gauzei, dena ezin baita ondo egin beti, eta hori gestionatzen asmatu behar du. Ikusiko dugu noraino iristen den".

nol Alvarez entrenatzaileak gidatzen duen taldearekin entrenatzen, bi egunez astero. Ikasten, trebatzen, zailtzen, eta amesten... baina oinak lurrean. Erizaintza ikasi nahi du, eta ikasketak eskubaloiaren aurretik jartzen ditu. "Oso gustura ari naiz lehen taldearekin, baina oso zaila da bidea osatu eta lehen taldera iristea, maila asko gainditu behar ditut oraindik".

Nolatan iritsi zinen Urnietatik Bera Bera taldera?

Infantil mailan Euskadiko selekzioarekin hasi nintzen jokatzeko, eta bertako arduradunei hobetzen jarraitzeko pauso egokiena zein zen aholkua eskatu genien. Bera Bera aukera ona zela esan ziguten, eta etxean aitarekin eta amarekin aztertu ondoren ba Bidebieta auzoko taldean hastea erabaki genuen. Bera Berako jokalaria batzuk ezagutzen nituen, selekzioan elkarrekin arituta, eta ondo egokitu nintzen. Entrenamenduak Urnietan baino askoz zorrotzagoak ziren, eta horretara ohitzea nekezagoa egin zitzaidan. Konpromisoa ere ezberdina da. Bera Beran lehiaketa kutsua askoz nabariagoa da, Urnietan baino. Euskal Liga jokatzeko zen helburua, eta lortu genuen, baino lan handia egin eta gero. Nolabait esateko, han presioa sentitzen da, Urnietan ez hainbeste. 14 urterekin gogorra da hori kudeatzea, irabazteko presio hori existitzen delako.

Eta nola kudeatu zenuen zuretzat ezezaguna zen presio hori?

Gustuko dudak kirol jarduerak, eta horrek gauzak ondo egingen saiatzera narama. Buelta asko ematen dizkiot nire partiduei, oso zorrotza naiz nire buruarekin. Partiden atarikoak ere ez dira samurrak izaten niretzat, urduri jartzen naiz, ahal dudan guztia erakusten saiatu zalea naizelako. Beti neurri ona ematea gustatzen zait.

Kadete mailan bi urte egin eta jubiletan hasi zinen iraillean, Bera Beran. Eta azaroan, ezustekoa. Ohorezko Mailako taldearekin entrenatzeko deia. Nola izan zen?

Iazko azaro aldera edo abisatu ninduten. Ohorezko Mailako jokalaria asko Espainiako Selektzioarekin zeuden, eta alboko falta zeudela esan zidaten, haiekin entrenatzen hasiko nintzela. Egun batetik bestera esan zidan nire taldeko entrenatzaileak. Lehen taldearekin aste bete inguru aritu ostean, Imanol Alvarez entrenatzaileak galdetu zidan ea plangintzaren berri ba ote nuen. Ezetz erantzun nion, eta 'Marseillan txapelketa bat jokatzen dugu, eta gurekin zator', bota zidan. Handik bueltatu ondotik, astelehen eta ostegunetan lehen taldearekin aritzen naiz, bi lan saio astero.

Eta, aldaketa handia izan al da?

Iztela. Taldea osatua zegoen, iritsi nintzenean, eta kosta egin zitzaidan sartzea. Bere alde ona ere badu, nire taldera bueltatuta, asko nabaritzen baita diferentzia. Maila hobegoko jokalariekin entrenatzen baduzu, koska bat

Gaztea eta saiatua aldi berean

Izena: Malen Morandeira Iriondo.

Adina: 16 urte.

Taldea: Bera Bera.

Kirol ibilbidea: Eskola Kirola Urnietan, eta 11 urtez geroztik Urnieta Kirol Elkarte eskubaloitaldetan, infantil mailan bi urte. Kadete mailako lehen urtean, 13 urterekin, Bera Beran hasi zen jokatzeko.

Hirugarren urtea osatzen ari da Donostiako taldearekin.

Ezaugarri fisikoak: 1.78 metroko garaiera.

Ezaugarri teknikoak:

Alboko da, eskuina.

9 metroko jaurtitzaila.

Defentsan ona, eta pibotarekin jokatzeko ondo moldatzen dena.

Hobetu beharreko alorrak:

"Gauza asko", dio. Fisikoa. Azkartasuna eta erresistentzia. Kosta egiten omen zaio erritmoa hartzea.



Malen Morandeirak 16 urterekin debuta egin du Bera Berako lehen taldearekin. BERABERA

Ez dut asko ezagutzen, baina oso serioa da bere lanean. Bere entrenamenduak gustuko ditut. Marsellan geundenean hainbat ariketa egin zituen jokalariorik elkarren artean hobeto ezagutzeko, eta oso ariketa polita izan zen.

Nolakoa da zure egun normal bat?

06.30ean jaiki, gosalduta eta 08:00tako Hernaniko Institutura joaten naiz. 15.15ak arte. Etxera buelta, bazkalduta, eta lan saioa 19:00an badaukat, etxeko lanak egin eta gero entrenatzera. 21.30ean buelta etxera, afalduta eta lo. Batxilergoa 1 ikasten ari naiz, eta erizaintza ikasi nahi nuke Donostian, beharrezkoa den nota lortzen badut.

Ikasketak edo eskubaloia, zer lehenetsiko zenuke, bietako bat aukeratu behar izango bazenu?

Ikasketak, noski. Garbi daukat. Ez dut uste bat edo bestea hautatzeko behar egongo naizetik, baina hala balitz, ikasketak hautatuko nituzke.

Nor da zure idoloa?

Nora Mork norvegiarra, eta Bera Beran Karsten Elke, albokoak biak.

Zer esaten dizute lagunek?

Batzuetan ez naute ulertzen, larunbat gauze etxean geratu behar izaten naizelako. Gero animatzen naute, eta badakite zertan ari naizen. Ez dut uste sakrifizio handirik egiten dudarik, ez baitut profesionala izateko prestatzen ari naizenik sentitzen. Nire bizimodua nire adineko beste gazteen antzekoa da. Gauza txiki batzuk aldatu dira, baina denak bezala egiten dut parranda, lagunekin ibili...

Errieta egiten al dizu aitak?

Ez, eta egingo balit ere ez nioke kasurik egingo. Eskubaloian nire entrenatzailea da niretzat aholku baliagarri bakarra.



Imanol Alvarez. MD

Bera Berako lehen entrenatzailea

Aiurri astekariak Urnietako jokalariorik soslaia egitea eskatu dio lehen taldeko entrenatzaileari. Hauexek Imanol Alvarezen hitzak: "Malen Morandeira epe ez oso luzean Ohorezko Mailako taldeko kide izan litekeen jokalaria moduan definituko nuke. Lehen lerroko jokalaria indartsua da, kanpoko lerrotik jaurtitzeko gaitasuna duena. Oraindik bidearen hasieran dago, eta horregatik, lan handia dauka egiteko, bai fisikoari dagokionez, baita alor teknikoan ere. Dagoeneko Ohorezko Taldean ari da lanean, eta hala erabaki dugun unetik, gure erantzukizuna da eskarmentua hartzen laguntzea, bere formazioan lagungarriak izan daitezen".

jaisten zarenearan nabaritu egiten da.

Oraingoz ezin dut Ohorezko Mailako taldekideen erritmoan jardun, oso azkarrak direlako. Lehen astetan ez nuen apenas jaurtiketarik egiten, eta pase txar asko ematen nituen, baina orain, pixkanaka, neurria hartzen hasi naiz, erosoago sentitzen naiz.

Eta lehen taldearekin entrenatzeko deia osten, debuta egiteko aukera, Kopan.

Ezustean harrapatu ninduen. Lehen taldearen partida baten atarian nire entrenatzaileak fitxa batzuk bidaltzeko esan zidan. Lehen partidaren ezin izan nuen jokatu, fitxarekin-eta arazoren bat izan zelako, baina bigarrenaren aulkian eseri ahal izan nintzen.

"TALDEKIDEEN ANIMO ASKO JASO NITUEN DEBUTEAN, GOZATZEKO ESATEN ZIDATEN"

Partida parekatua izan zen, eta horretan ez nuen jokatu.

Hurrengo Alcobendasen aurka izan zen, eta Bera Bera aise irabazten ari zen. Aukera eman zidan entrenatzaileak, eta 10-15 minutu jokatu nituen.

Nola izan zen bizitzan behin bakarrik ematen den momentu hori? Zer oroitzen duzu?

Taldekideen animo asko jaso nituen, gozatzeko esanez, eta lasai egoteko. Oso gustura aritu nintzen, animo asko eman zizkidaten harmailatik. Politia izan zen, eta entrenatzaileak berak hitz batzuk esan zizkidan, partida bukaerako agurra egin ondoren: 'gaur bai, gaur debutatu duzu', esan zidan. Gero saketakoan dozenaka mezu jaso nituen, debutatu izanagatik zoriontzen.

"GUSTUKO DUT ESKUBALOA, ETA HORREK GAUZAK ONDO EGITEN SAIAZERA NARAMA"

Maila gorenen bidea egiteko aukerarik baduzula uste duzu?

Gustatuko litzaidake, noski, inguruan dagoen maila goreneko aukerarik onena baita. Haiekin entrenatzen eta ikasten ari naiz, gustura. Baina oso zaila da. Batez ere nibel asko gainditu behar nituzkeelako. Nahi dut, eta espero dut lortzea, baina oso gaztea naiz. Izatekotan, ez da azkar izango, ze lehen taldeko maila oso ona da. Denak dira jokalarik apartak.

Nolakoak dira Bera Berako jokalariek? Taldekideak neska arruntak dira, kaleko edozein emakume bezala, naturalak.

Profesionalak al dira?

Jokalarik batzuk ikasi eta jokatu egiten dute, eta beste batzuk lana eta jokatu. Ez da erabat profesionala, oraindik.

Norekin moldatzen zara ondoen?

Estitxu Berasategi eta Nora Azurmendirekin, gazteekin. Beste jokalarik batzuk 28 urte dituzte, dagoeneko, eta nik 16 baino ez. Jauzi handia dago.

Eta zer moduz Imanol Alvarez entrenatzailearekin?





ANDOINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Andoingo Txirrindulari Eskolaren aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Laster denboraldi berriari ekingo diote. Honakoa, aurten osatu duten lantalde: **Txirrindulariak** zutik, ezkerretik: Peru Alkain, Iker Atxaga Galarza, Iker Atxaga Robles, Iker Balbas, Ibai Vela, Unai Galarza, Ibai Omeñaka, Oskitz Sagredo, Ekain Mitxelena, Mikel Goikoetxea, Xuhar Etchezarreta, Iker Ugartemendia, Markel Etxarri, Ganix Ormazabal. Makurtuta, ezkerretik: Oihan Mitxelena, Peru Sarasola, Imanol Lertxundi, Eneko Ugartemendia,

Xanet Manterola, Maddi Ormazabal, Lizar Zuriarrain, Oihan Guisado, Ixiar Alkain, Uxue Etxarri, Izaro Etxarri, Izaro Zuriarrain, Joana Tolaretxipi. **Zuzendariak** zutik, ezkerretik: Luis Beneitez, Aitzol Zuriarrain, Peio Manterola, Koldo Velasco, Jose Sanchez, Iñaki Arin, Jon Goikoetxea, Jon Mikel Mujika, Xabier Perez, Josu Iraola. Makurtuta, ezkerretik: Patxi Altuna, Jose Luis Barberena eta Aitor Amutxastegi.



EUSKADIMURIAS

Profesional mailako tropelean

TXIRRINDULARITZA Mikel Iturriak Valentiako Itzuliko bigarren etapan eguneko ihesaldian parte hartu zuen. Urnietarrentzat aurtengo debuta izan zen. Mikel Alonso herrikideak lehenxeago egin zuen debuta, Mallorcan. Taldeak honako oharra argitara eman zuen: "Oraindik urrun, baina aldi berean munduko onenen gertu gure Mikel Alonso atzoko esprintean".



EUSKADIFUNDAZIOA



Euskalduna futbol taldea.

Ligako lehen partida galdu eta berehala iritsi da garaipena

FUTBOLA Kostata, eta partidaren amaiera aldera iritsi zen garaipena. Partida orekatua izan zen, eta arauzko denbora igarota husna zegoen markagailua. Lu-zapenean, Euskaldunak webgunean azaldu duen bezala, "Rote-ta taldeak neurketa osoan izandako aukerarik onena eduki zuen. Hamaikakora itzuli zen Eneko Lopez atezainak erantzun aparta eman zuen, aurkariaren jaurtiketa kornerrera desbideratuz". Korner jaurtiketa eta gero, urdinek kontraeraso azkarra egin zuten eta hortxe iritsi zen garaipenaren gola. 0-1ekoa Martin Mendizabalek egin zuen. Lider sendoa da Euskalduna.



UKE

Maila handiko aurkariak

ESKUBALOA UKE eskubaloi taldeko kadete mailakoentzat asteburu zaila izan zen. Nesken mailan, bigarren urtekoek Zarautzen joko ona egin eta gero partida galdu zuten (29-21). Lehen urtekoek etxean jokatu zuten, giro ederrarekin, baina garaipena Hernanira joan zen (16-18). Mutilek Egiaren aurka galdu zuten (26-32).



UKE



Behean, ezkerrean hasita, Maider eta Nora Mendizabal pilotariak. GIPUZKOAPILOTA

Mendizabal, txapelkun-orde

PILOTA Emakumea Pilotari txapelketako finalean, Urien-Espinar bikotea 22-12 gailendu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen mailako txapelketako finala jokatu zuten Nora Mendizabal andoaindarrak eta Maider Mendizabal anoetarrak. Zestoan jokatu zuten finala, joan zen ostiralean, Urien-Espinar bikotearen aurka. Ikusle dezenteren aurrean, eta festa giroan, Urolan jokatu ziren txapelketa berri honen lehen edizioako 1. eta 2.

mailako finalak. Pilota federazioarentzat "arrakastatsua izan da eskuz binakako Emakumea Pilotariko lehendabiziko edizioa. 9 bikote lehiatu dira, 4 lehen mailan eta 5 bigarren mailan". Norarentzat esperientzia ona izan da, bere kirol garapenerako baliagarria izango dena. Denboraldiak aurrera darrai, eta badira txapelketa gehiago.



Euskaldunako lehen taldea. SDEUSKALDUNA

Neguko igeriketa txapelketa

IGERIKETA Buruntzaldea igeriketa taldeko infantil mailako zortzikotea bikain aritu da

Erredakzioa ANDOAIN

Bergaran infantil mailako Gipuzkoako Neguko Txapelketa antolatu zuten, eta Buruntzaldea IKT taldeko kideak pozarren itzuli dira: "Gure taldetik zortzi igerilari aritu ziren lehian, nor baino nor gogotsuago. Horren erakusgarri dira lortutako emai-

tza bikainak. Nerea Santos, Aintzane Sarobe, Nora Imaz eta Nahia Zudaire aritu ziren nesken mailan eta Eneko Elizasu, Unai G. Somovilla, Aimar Sukunza eta Iker Felipe, berriz, mutilen mailan. Guztiek ere marka pertsonal ugari hobetzea lortu zuten".



Areto futbol txapelketa. AIURRI

Andoingo Areto Futbol txapelketa aurrera doa

ARETO FUTBOLA Txapelketa aurrera doa. 5. jardunaldia:

Academia G.F. 5-4 Ganbara
Brew & Roll 2-13 Dad Kutxa
Batzokia 7-2 Pausoka
Aker Beltz 5-1 Lanbroa
Irunberri Ke 2-14 C.Antonio
La Almazara 1-7 Ekhia
Ganbara Bi 7-4 Brikogoros

Sailkapena:
1. Aker Beltz 12 puntu
2. Ekhia 12 puntu
3. DAD Kutxa 12 puntu



Nerea Irazu gaztea. BURUNTZALDEAIKT

Teknikazio saiora deitu du Gipuzkoako Federazioak

IGERIKETA Gipuzkoako Igeriketa Federazioak aditzera eman duenez, Nerea Irazu taldekidea teknikazio saiora gonbidatu dute. Larunbat honetan izango da Donostiako Saioa Anoetako Paco Yoldi igerilekuan, 11:30ean hasita. Alebin mailakoek uretan bertan prestaketa saio berezia egingo dutela iragarri dute.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Roteta-Euskalduna 0-1
Hernani-Urnieta 3-2
Billabona-Roteta 0-4

SAILKAPENA

1 Euskalduna 52 puntu
2 Touring 40 puntu
3 Mundarro 40 puntu
12 Urnieta 20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00 Euskalduna-Tolosa / Lar, 16

19:00 Urnieta-Trintxerpe / Lar, 16

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Intxurre 0-2

SAILKAPENA

1 Axular 45 puntu
8 Euskalduna 21 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Herrera-Euskalduna / Lar, 16

GORENGO MAILA, NESKAK

IGOERA FASEA

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Urnieta-Hondarribi / Lar, 16

KOPA

ASTEBURUKO PARTIDA

19:50 Euskalduna-Axular / Lar, 16

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Anaitasuna 2-3

SAILKAPENA

1 Billabona 42 puntu
13 Euskalduna 23 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Beasain-Euskalduna / Lar, 16

JUBENIL MAILA, KOPA

EMAITZAK

Euskalduna-Urnieta 2-2

SAILKAPENA

1 Usurbil 10 puntu
4 Urnieta 5 puntu
7 Euskalduna 2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:15 Urnieta-Danena / Lar, 16

Atsedena Euskalduna

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Añorga-Euskalduna 3-3

SAILKAPENA

1 Antiguoko 51 puntu
15 Euskalduna 10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45 Euskalduna-Baskonia / Lar, 16

KADETE MAILA, NESKAK

KOPA

Urnieta-Euskalduna 0-4

SAILKAPENA

1 Mundarro 9 puntu
3 Euskalduna 6 puntu
7 Urnieta 0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Euskalduna-Amara Berri / Ig, 17

12:00 Goierri A-Urnieta / Lar, 16

KADETE MAILA, MUTILAK

KOPA, 5. MULTZOA

EMAITZA

Lengokoak B-Urnieta A 2-2

SAILKAPENA

1 Antigua A 10 puntu
5 Urnieta A 4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Urnieta A-Ekintza / Lar, 16

KOPA, 7. MULTZOA

EMAITZA

Urnieta B-Zarautz B 4-5
Ostadar B-Euskalduna 3-0

SAILKAPENA

1 Danena 10 puntu
4 Urnieta B 6 puntu
7 Euskalduna 1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:30 Euskalduna-Danena / Lar, 16

15:45 Usurbil-Urnieta B / Lar, 16

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOA, 1. MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Jaixki 3-1

SAILKAPENA

1 Euskalduna 39 puntu
2 Orixe 36 puntu

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Elgoibar-Urnieta 15-24

SAILKAPENA

1 Munttarpe 22 puntu
3 Urnieta 18 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta-Eibar / Lar, 16

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Leizaran-Legazpi 30-17

SAILKAPENA

1 Usurbil 26 puntu
3 Leizaran 18 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Munttarpe-Leizaran / Ig, 17

JUBENIL MAILA, NESKAK

UDABERRI TORNEOA

Urnieta-Egoibar 13-21

Bergara-Leizaran 17-22

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00 Bergara-Urnieta / Lar, 16

17:45 Leizaran-Ereintza / Lar, 16

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 15

ANDOAIN Piano jaialdia

Andoingo Musika Eskolako piano ikasleen emanaldia.

17:30, Basteroko ekitaldi aretoa. Francisco Escudero kontserbatorioko orkestra sinfonikoa, abesbatza eta Andoingo Musika Eskolako abesbatza txikia.

19:15, Basteroko auditorioa.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik.

17:00, Lekaio.

URNIETA Majia

Asier Kidamen eskutik, "Aroa eta mirariak" ikuskizuna.

18:00, Sarobe.

URNIETA Diaporama

"Azore uharteak", Manex Aldairen eskutik. Hiru finalisten arteko lehen diaporama eskainiko dute.

18:30, Lekaio.

HERNANI Solasaldia

Matas Salla bartzelonarrak epaiketaz eta subirautzaz hitzaldia eskainiko du, Gure Esku Dagok antolatuta.

19:00, Biteri.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Puska biltzea

Inauterien etorrera iragarri, Axeri dantzariak neguko ospakizuna egingo dute. Buruntzako baserrietan barrena ibiliko dira. Iruberrin ipini dute hitzordua.

08:00, Buruntza auzunea.

ANDOAIN Piano jaialdia

Ehunka musikari igoko dira oholtzara, egun osoan zehar.

09:30, Bastero.

ANDOAIN Omenaldia

Duela 25 urte presoan eskubideen aldeko ekitaldi batera zihoan Matilde andoaindarra istripuz hil zen.

12:00, Espigoia.

URNIETA Antzerkia

"Mimos, el musical", Les Figurettes antzerki taldearen eskutik. Mimi eta Momo dira protagonista nagusiak.

19:00, Sarobe. 5 euro.



Asier Kidam magoa. AIURRI

URNIETA Elkartasunezko majia saioa eta txokolate-jatea

Super H elkarteak eta Urnieta Udalak antolatuta, Asier Kidam magoa Urnieta dator. Elkartasunezko emanaldia izango da, haur minbiziaren nazioarteko egunarekin bat eginez. Lortutako dirua ikerkuntzara bideratuko dute.

18:00, Sarobe. Urnieta. Otsailak 15, ostirala.

IGANDEA 17

DONOSTIA Manifestazioa

Gure Esku Dagok deituta.

12:00, Groseko Katalunia plaza.

ANDOAIN Piano jaialdia

Sari banaketa eta azken kontzertua.

18:30, Bastero.

ASTEARTEA 19

ANDOAIN Hitzaldia

Nerea Kortajarenaren eskutik, pentsioak hizpide. EH Bilduren eskutik.

11:00, Bilgunea. Zumea kalea.

ANDOAIN Hitzaldia

Maite Peña Gipuzkoako Gizarte Politikako Diputatuaren eskutik. EAJ-PNVren eskutik.

19:00, Bastero.

ASTEAZKENA 20

ANDOAIN Andoingo Gudua

Edizio berria egin edo ez erabakitzeko bilera.

19:00, Basteroko ekitaldi aretoa.

OSTEGUNA 21

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko Udal batzarra.

19:00, Udaletxea.

OSTIRALA 22

ANDOAIN Kontzertua

"Quartet party", klarinete ikasleak.

18:30, Bastero.

URNIETA Diaporama

"Tailandia", Maddalen Kortajarenaren eskutik.

18:30, Lekaio.

LARUNBATA 23

ANDOAIN Erakusketa

Frederic Gutierrez Barderen 'Izakia eta itzalen artean'.

Azken eguna, otsailaren 23a.


IGANDEA 24

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Linbo planeta", Dejabu.

17:00, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Emanaldirik ez**

Piano jaialdia.

Green Book


Larunbata, 23:
19:30; 22:00.
Igandea, 24: 19:30.
Ast, 25: 19:30; 22:00.

URNIETA**LEKAI****Exit, un corto a la carta**

Ostg, 14: 19:00.

SAROBE**Stubby**

Igandea, 17: 17:00.



SINOPSIS

**Stubby, un hero muy especial**

Zuz.: Richard Lanni. **Herr.:** AEB. **Generoa:** Animazioa. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 85 minutu.

Heroi bilakatutako animalia

Lehen Mundu Gerran zakur bat heroi bilakatu zen. Conroy gaztearen bidez, abentura

ezberdinak bizi izan zituen. Hori dela eta hainbat sari jaso zituen.

SINOPSIS

**Green book**

Zuz.: Peter Farrelly. **Herr.:** AEB (2019). **Aktoreak:** Viggo Mortensen, Mahershala Ali, Linda Cardellini. **Iraupena:** 130 minutu. **Generoa:** Drama.

Viggo Mortensenen lan saritua

Italiar jatorriko auto gidari zatarra da Tony (Viggo Mortensen). Lan berria eskaini diote, Don (Mahershala Ali) musikari afroamerikarra

batetik bestera eramatea. Musika bira horretan liburu berdea daramate, azal beltzeko bezeroak onartzen dituzten gida. Film saritua izaten ari da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Jon Loiarte
Ondo legoke Errealak 7 gol sartzea zure 7. urtebetetzean, e? Zazpi muxu zuretzat!



ANDOAIN
Ane Etxezarreta
4 urte beteko dituzu otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxekoentzako partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.

Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.

Whatsapppez:

619 16 35 37

Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 16 eta igandea 17
DIAZ FERNANDEZ: Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 16 eta igandea 17
CASTILLA-LARBURU: Urbietia, 8.
943 552 941. Hernani.
GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurrin: 90 euro

AROA ETA MIRARIAK

HAUR MINBIZIAREN IKERKUNTZAREN ALDE
Biltzen den dirua, Haur Minbiziaren diagnostiko eta tratamenduaren goi mailako ikerkuntzen inguruko proiektuetarako izango da

15 OTSAILA
HAUR MINBIZIAREN NAZIOARTERKO EGUNA

NON: SAROBEN
ORDUA: 18.00...
DONATIBOIA: 5€
(amanakidua + txokolatada)

2. TXOKOLATADA SOLIDARIOA

WWW.TXOKOLATABASOLIDARIA.ORG

andoainDARRA
euskaraz



Andoaingo Gudua. BAZKUNA

Andoaingo Gudua egin edo ez erabakitzeke bilera deitu du Bazkunak

KOMUNITATEA

Larramendi Bazkuna

2017an antzeztu zen azkenekoz, eta hirugarrenegoz, Andoaingo gudua herriko kaleetan barrena, arrakasta handiz. Nolanahi ere, ordukoaren balorazioa egiteko garaian antolatzaileek adierazi zuten zail ikusten zutela hurrengorik antolatu ahal izatea, behar beste baliabiderik ez zutelako.

Aurreneko hiru ikuskizunak bi urteko tartearekin antzeztu zirenez (2013-2015-2017) batek baino gehiagok galdetu egin du aurten Guduaren antzeppenik izango ote den, eta Larramendi Bazkunak aditzera eman nahi du, orain hilabete batzuk Udalarari adierazi zion bezalaxe, aurten ez dela izango eta, izatekotan, 2020. urtean izango dela, baina horretarako aurretik jakin beharko dela orain arte sumatu diren gabeziak estaliko diren ala ez.

Hori guztia argitu eta erabakitzeke, hots, 2020an Andoaingo Gudurik antzeztuko ote den, Larramendi Bazkunak bilera deitu du otsailaren 20an, asteazkenarekin, 19:00tan hasita, Basteroko ekitaldi aretoan. Bertara azaltzen direnek adierazten duten prestutasunaren arabera erabakiko da ikuskizuna egin ala ez. Beraz, parte hartu edota antolaketan lagundu nahi duten guztiei dei egiten zaie bilera horretara azal daitezten. Informazioa: 656 782 521. bazkuna@larramendi.org.

AZKENA

Azore uharteetan barrena egindako bidaiaria

Urnietako Udalak bigarren aldiz antolatu du Diaporama lehiaketa. Aurtengo finalistak elkarren artean oso ezberdinak dira: Amsterdam, Tailandia eta Azore uharteak. Manex Alday izango da lehena, uhartei buruzko diaporama eskainiko baitu ostiral honetan



Manex Alday urnietarra Azore uharteetako paisaia ikusgarrienetako batean. MANEXALDAY

Amaia Senperena URNIETA

Lehiaketaren berri bazuen, eta orain dela aste batzuk aurtengo deialdia ikusi eta parte hartzea erabaki zuen. Bere bidaiaria-proposamena Urnietako Diaporama jaialdiaren finalistaren artean aukeratu dute. Ostiral honetan egingo du aurkezpena, arratsaldeko 18:30ean hasita Lekaion. **Zer dela eta erabaki zenuen parte hartzea?**

"2018AN AZORE UHARTEETAN SEI HILABETEKO EGONALDIA EGIN NUEN"

2018an, Global Training bekari esker, Azore uharteetan sei hilabeteko egonaldia egin nuen. Argazki ugari atera nituen eta nire esperientzia edonori baliagarria izatea nahiko nuke. Horixe zen nire asmoa. Aukeratu naute, eta gustura nago.

Beraz, ez zen aisialdi moduan egindako bidaiaria izan.

Global Training Eusko Jaurlaritzak lanera kanpora joan ahal

"GLOBAL TRAINING JAURLARITZAREN BEKARI ESKER, BERTAN LAN EGITEKO AUKERA IZAN NUEN"

izateko sustatzen duen ekimena da. Beka bat da, eta oso ondo dago. Egitasmoa nahikoa berria

da, atzerrira joateko aukera eskaintzen duena. Nire aurkezpenak egitasmoa zabaltzeko balio dezake. Jende oso gutxi baitu horren berri. Azores uharteetan egoteko aukera izan du, oso leku ikusgarria.

Hori da, beraz, zure bidaiaren berezigarrienetakoa

Bai, nire ustez hori da interesgarriena. Nik ere oporretan ibiltzeko aukera izan nueni, baina ni hara lan egitera joan nintzen.

Ta nolatan Azores uharteak?

Nire ikasketekin lotura zuelako. 2012An, gainera, hara joateko aukera izan nuen baina azkenean Maltara joatea erabaki nuen. Beti izan dut Azores uharteetara joateko gogoia.

Beste bi finalistaren lanen berri ba al duzu?

Ez daukat, oraingoz, informazio asko. Gu hirurak izan gara aukeratuak eta hori da garrantzitsua. Egia esan ez dut beste biek hitz egin, aurkezpen egunera arte itxaron beharko da.

Gustuko al duzu bidaiatzea?

Bai, baina horretarako denbora eta dirua beharrezko dira.

Saria lortuz gero, zer egingo zenuke diruarekin?

Diru hori beste bidaiaria batean aprobetxatzea gustatuko litzaidake.

Ba al duzu buruan beste bidaiarik?

Oraintxe bertan ez. Baina azken bidaiaren ezagutu gabe utzi nituen bi uharte. Noizbait horiek biak bisitatzea joan nahiko nuke.

Zer esango zenioke ikuslegoari, ostiral honetako aurkezpen ekitaldiaren atarian?

Leku berezi bat ezagutu nahi badute, hurbil daitezela Lekaio-ko emanaldira. Ongietorriak izango dira, anima daitezela.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA